

## AZKEN ORDUKO OHARRA: UDAKO KANPALDIAK BERTAN BEHERA

Alai Batzako familia agurgarriak:

Ohar honen bidez, udako kanpaldiei buruzko azken erabakiak azaldu nahi dizkizuegu. COVID-19aren ondorioz bizi dugun egoera dela eta, Salesiar Gazte Pastoraltzako arduradunekin hainbat bilera egin ondoren, **Logroño-Somaloko kanpaldiak bertan behera uztea erabaki** da.

Arrazoi asko daude erabaki hori hartzeko: probintzia arteko mugimenduak, osasun protokoloak, segurtasun eta prebentzio neurriak (instalazioen garbiketa, materialen erabilera, pertsonen arteko 2 metroko tarteak, kutsatzeak saihestea...) ... Horiek guztiak kontuan hartuta ezinezkoa da kanpaldiak baldintza egokietan gauzatzea. Eta horregatik erabaki da 2020ko Logroño-Somaloko kanpaldi guztiak bertan behera geratzea.

Beraz, hasteko, eskerrak eman nahi dizkizuegu guregan jarritako konfiantzagatik eta kanpaldietan parte hartzeko izena emateagatik. Bestalde, **diru guztia itzuliko zaizue**: aurreinskripzioa eta 2. Ordainketa (egin dutenei). Dirua itzultzeko patio berdean dagoen Alai Batzako bulegotik pasa beharko duzue haurren gurasoek. Pilaketak saihesteko hurrengo egunetan bulegotik pasatzea pentsatu dugu:

- **Maiatzaren 21an eta 22an**: LH4-LH5-LH6 mailatan dauden haurrak
- **Maiatzaren 25ean eta 26an**: DBH1-DBH2-DBH4-BATX2 mailatan dauden gaztetxoak.

Egokitzen zaizuen egunean ezin baduzue pasa, lasai igaro beste egun batean, baina bestela saiatu datak errespetatzen, horrela pilaketak saihestuko ditugu eta.

Beste edozein zalantza baduzue, idatzi [alaibatza@alaibatza.com](mailto:alaibatza@alaibatza.com) helbidera edota 623 18 03 88 telefonora.

Adeitasunez,

Agur bat.

*Alai Batza*